

## EZARRITAKO ANTOLAKETA HAU BEHIN BEHINEKOA DA, ETA COVID-19AREN EBOLUZIOAREN BAITAN ALDAKORRA IZAN DAITEKE.

### LH1

Ikastolara sarrera ate Nagusitik egingo da (Arkutik), eta idazkaritza ondoko sarreratik Harmailetara joan beharko da. Ikasleak/familiak markatutako lekuan zain egon beharko dira dagokion segurtasuna tartea errespetatuz.

Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako itxarongunea, irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira.

### IRAILAren 14tik AURRERA

Ikasturte honetan zehar, ikasleak 9:00-9:15 bitartean sartuko dira geletara, itxaron gunean egon beharko dira *eta* Tutoreak gerturatuko dira itxaron guneetara ikasleak jaso eta entregatzera. Bitartean segurtasun protokoloa beteko da.

- Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez lehenago ez beranduago.
- Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarragaz etorriko dira.
- Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz.

Ikasleak eguerdian, 12:30ean aterako dira klasetik (asteazkenak barne). Ikaslea **BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera 16:30tan izango da, markatutako ibilbide berdinetik.**

**Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.**

SARRERA-IRTEERA



ITXARON GUNEA FAMILIENTZAT

